



MADDI SOROA

**Baleren
Bakaikoa
Azurmendi**



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Ekonomia aldeak areagotzen ari dira

PENTSAMENDU EKONOMIKO nagusiaren arabera, ekonomiaren helburuak mozkinak ahal diren handienak lortzea izan behar omen du eta horretarako baliabide ekonomikoak behar den moduan atondu behar dira. Mundu honetako norbanakoen beharrianak ase orde, mozkinak eskuratzea izan behar du xede. Beraz, mozkinen inguruan antolatuko dira baliabide guztiak, eta berdin dio —edozein dela ere helburua— horrek pertsonengan nahiz izadian ekarriko dituen ondorioak.

Premisa ekonomiko hori izan da orain artekoa eta hausnarketa bat gehiago burutzeko bidea eman digu Intermon Oxfam gobernu kanpoko erakundeak kaleratu duen azken txostenak. Munduko populazioaren azterketa sozio-ekonomikoa azaltzen du eta emaitzak oilo-ipurdia jartzeko modukoak dira.

Espainiako Estatuan bertan, 20 pertsonen populazioaren %20 txiroenaren pareko sarrerak dituzte! Horrela jarraituz gero, 2022 urtean Espainiako Estatuan 18 milioi txiro egongo omen dira, populazioaren %40

Izan ere, jakin bagenekien 1930eko Depresio Nagusiaren ondoren aberatse-nen eta txiroenen arteko alde ekonomikoak izugarri handitu zirela. Gerora, II. Mundu Gerra amaitu ostean, zerga sistema aurrerakor baten ondorioz, alde ekonomiko horiek asko murriztu ziren eta 30 urteko “kapitalismoaren urrezko aroa” bezala ezagutzen den garaia etorri zitzaigun.

Gerora, eskuineko pentsamenduak indarra hartu zuen eta 70eko hamarkadan posizio ideologiko sendoak berreskuratu-ta zeukan eskuin nagusiak. Ordutik, gobernura heldu da eskuin hori eta sozial-demokrazia ustel baten konplizitatearekin neurri eta erakunde ugari eratu (Trilaterala, Davosko Mundu Ekonomia Forua, Munduko Merkataritza Erakundea, EB, NAFTA...) edo egokitu (NDF, MB...) dituzte: ekonomia erabat deserregularizatu dute. Finean, elite ekonomikoa erakunde politikoei erabat gailendu zaie.

Egoera sozio-ekonomiko berri honen ondorioz aberatsak aberatsago bihurtu dira eta horretarako langile xume eta ertainei gutxiago ordaindu zaie 1970etik hona. Hartutako neurriak gauzatzerakoan klase ertainei kendu zaie (zergak ordainaraziz, jendarteko gastuak murriztuz...) aberatsei emateko (finantza erakundeak erreskatatzeko...).

Horren guztiaren ondorioz, munduko 85 pertsona aberatsenak 3.500 milioi pertsona txiroenak —munduko populazioaren erdia— bezainbesteko kapitala dute. Beste modu batera azalduta, munduko populazioaren %1ek munduko aberastasunaren %46 daukate. Espainiako Estatuan bertan, 20 pertsonen populazioaren %20 txiroenaren pareko sarrerak dituzte! Horrela jarraituz gero, 2022 urtean Espainiako Estatuan 18 milioi txiro egongo omen dira, populazioaren %40. Harrigarriena da 1970etik hona munduko ekonomia hiru bider handitu dela, hau da, 24 bilioi dolarretatik 70 bilioitara, baina hortik gutxiago iristen da populazio txiroarenentzat. Gainera, urtero 21 bilioi dolarrek, Espainiako Estatu BPG 15 aldiz, ogasunetatik ihes egiten dute. Europan ere antzeko alde ekonomikoak daude eta areagotzen ari dira. Egoera tamalgarri honen aurrean, zer egin?

Davosko Mundu Ekonomia Forua kezkatuta omen dago. Egoera hori arintzen ez bada, hemendik 12-18 hilabeteren buruan, iskanbilak zabalduko omen dira jendartean. Bien bitartean, ondoko neurriak hartu beharko lirateke epe ertain-luzera: 1. Zerga bilketa eta jendarte justizia handitu. 2. Paradisu fiskalak suntsitu. 3. Finantza kapitalen transakzioei zerga duinak ezarri. 4. Jendarte politikak eta garapenerako lankidetzaz sustatu, doikuntza fiskalen orde. 5. Demokrazia sendotu, politikak ekonomia menperatu behar baitu.

Horiek lirateke munduko populazioaren alde egiteko hartu beharreko neurri politiko eta ekonomiko batzuk, baina indarrean jartzeko gaur egun baino kementsuago azaldu beharko luke jendarte zibilak. ■

